

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 1/2021

(...)K EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAKO (...) SAILEKO GOI-KARGUDUN OHI BATZUK, JAURLARITZAN ZITUZTEN ARDURAK UTZI ONDOREN, BEREN EGINKIZUNAK IZANDAKOEN ARLO BEREKO ENPRESA PRIVATU BATEAN LANEAN HASI ZIRELA-ETA.

1.- 2020ko azaroaren 26an, Etika Publikorako Batzordearen postontzi elektronikoan jaso genuen (...) jaunak bidalitako e-maila. Mezu horren bidez batzorde honi kontsulta egin zion, jakiteko ea Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) kontrakoa izan zitekeen (...) Saileko goi-kargudun ohi batzuek Jaurlaritzan zituzten ardurak utzi ondoren hasitako lan-jarduera.

2.- Idazkiak honako hau dio, zehazki: “(...) Saileko zenbait kargu ohi, dimisioa eman edo kargua utzi eta berehala, osasunaren arloko (...) enpresa pribatuan lanean hasi ziren”. Idazkiaren arabera, enpresa horrek “urte asko daramatza jardunean eta zentro medikoak hornitzen, bai zuzenean, bai beste enpresa eta fundazio batzuetan parte hartuta” (besteak beste, (...) eta (...) enpresetan). (...) jaunak dioenez, “(...) Sailak kontratuak sinatu ditu azken urteotan enpresa horiekin”, eta “baliteke etorkizunean ere sinatzea”.

3.- Idazkiak hau gaineratzen du: “(...) sailburu ohiaren kasuan, bi hilabete igaro ziren dimisioa eman zuenetik enpresa horretan lanean hasi zen arte”. (...) jaunak erantsi duenez, geroago jakin da (...) sailburuorde izandakoa eta (...) (...) azken zuzendariordea ere lanean ari direla (...) enpresan.

4.- (...) jaunak adierazi du Jaurlaritzak hirurei eman diela baimena —alegia, (...) jaunari eta (...) eta (...) andreei— jarduera pribatuak egiteko kargu publikoa utzi eta hurrengo bi urteetan; eta “Etika Batzordeak ez duela inolako bilerarik egin baimen hori emateko”. Hala, (...) jaunak bere idazkian nabarmendu duenez, Etika Publikorako Batzordeari eskatzen dio azter dezala ea bat datorren Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodearekin honako hau: osasunaren arloko enpresetan zuzenean lanean hasia (...) Sailean erantzukizuneko karguak izan dituzten pertsonak,

kontuan izanda enpresa horiek aipatu sailarekin harreman zuzena izan dutela eta seguruenik aurrerago ere izango dutela.

5.- Gainera, (...) andreari dagokionez, idazkiak dio (...) izenekoaren kudeatzaile gisa alta emanda zegoela (...) enpresan 2020ko irailaren 10etik, eta (...)ra arte Gobernu Kontseiluak ez zuela kendu (...) Administrazio Kontseiluan zeukan kargutik. Beraz, gai hori ere aztertzeko eskatu dio Etika Publikorako Batzordeari.

6.- Amaitzeko, (...) jaunak arestian azaldutako eskaerak laburbildu ditu, eta Etika Publikorako Batzorde honi eskatu dio erabaki dezala ea (...) Sailak edo (...)k neurriren bat hartu behar duten datozen urteetan enpresa interesdunekin egin daitezkeen kontratazioei begira. Ildo horretatik, (...) jaunak berariaz eskatu du azter dadila ea Etika eta Jokabide Kodea urratu duen (...) sailburuorde ohiak, 2020ko urriaren 20ra arte (...)ko Administrazio Kontseiluko kide izan zelako eta ordurako lanean ziharduelako (...) enpresan.

7.- Azkenik, hau argitu behar dugu: azaroaren 15eko 156/2016 Dekretuak, kargu publikodunen betebeharrei eta eskubideei buruzkoak, kargu publikodun gisa zerbitzua amaitu ondorengo bi urteetan jarduera pribatuak bateragarri egiteko prozedura arautzean ezartzen du ebazpena ematea funtzio publikoaren eskumena duen saileko titularraren eskumena izango dela. Bada, pertsona hori Etika Publikorako Batzordeko burua da, eta, horrenbestez, bidezkoa da hura gai honetan abstenitzea.

Bestalde, EAeko Administrazioako eta bere sektore publikoko kargu publikodunen Etika eta Jokabide Kodearen Testu Bategina onesten duen Erabakiaren 16.8 artikulua dioenez, ordezkapenen araubidea arautzean, indarrean dagoen Jardun Arloen Dekretuan xedatutako lehentasun-hurrenkeraren arabera ezartzen den Saileko titularrak ordeztuko du batzordeburua¹. Beraz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuari dagokio batzordeburua ordezkatzeara.

8.- Horiek horrela, Etika Publikorako Batzorde honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren apartatuan adierazitako tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du, aho batez:

¹ 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen.

ERABAKIA

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak, 2013ko maiatzaren 28an, Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onartu zuen, zeina egun jasota baitago 2016ko azaroaren 22an onartutako Testu Bateginean. Kode hori sortzearen helburua politikaren etika-zentzua berreskuratzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko erronkari erantzutea izan zen.

Horretarako, aipatu Kodeak aditzera ematen du zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza exekutiboko kide diren kargu publikodunei eta parekatuei, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezten dokumentu horretan zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: Integritatea, Bikaintasuna, Politika eta Kudeaketaren arteko Lerrokatzea, Lidergoa, eta Berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna; Kudeaketarako Erantzukizuna; Gardentasuna eta Gobernu Irekia; Onestasuna eta Desinteres Subjektiboa; Errespetua, eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek haiek erreferentziatzat hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko kargu publikodunek eta beren borondatez Kodearekin bat egiten duten parekatuek nahiz Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonak helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, EJKren 16.3.1. e) apartatuaren lehenengo tartekian ezarritakoaren arabera, EPB organo eskuduna da “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kezak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko”.

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Etika Publikorako Batzorde honek behin baino gehiagotan adierazi duenez (ikus 4/2015 eta 1/2017 Erabakiak eta, berrikiago, 5/2019 Erabakia), Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) ondorioek denborazko muga batzuk eta muga subjektibo batzuk dituzte; muga horiek Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu ziren, eta ez dira aldatu, beren horretan utzi baitzituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituenak (JKIGL). Hala, Kodearen aginduek ondorioak sortzen dituzte soilik arauaren 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunengan, pertsona horiek ofizialki izendatu eta araua beteko dutela hitzeman ondoren Etika eta Jokabide Kodearen Testu Bateginaren 18. artikulua aipatzen duen "banakako atxikipenaren" bidez (2016ko azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen testu hori).

2.- Hori horrela, arauan aipatutako pertsonen dagokienez, EJKri atxikitako pertsonak baino ez ditu behartzen kode horrek. Beraz, Kodearen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira gainerako langileak, funtzionarioak edo beste mota batekoak izan, nahiz eta haien jardunak dilema etikoren bat sorrarazi, eta batzorde honek ez du eskumenik izango horri buruz ezer erabakitzeko. Hori dela-eta, batzorde hau abstenitu egin da hainbat gaitan; adibidez, zalantzan jarritako pertsonak Eusko Jaurlaritzatik kanpoko kargu publikodunak zirenean —5/2019 Erabakian aztertutako kasuan, esaterako—, edo, erakunde-figura bereziak edo apartekoak izanda ere, JKIGLren aplikazio-eremuan sartzen ez diren pertsonen kasuan —ikusi 1/2019 Gaia—.

3.- Bestalde, denboraren ikuspegitik, EJKn jasotako balioak, printzipioak eta jokabideak aipatutako kargu publikodunei aplikatuko zaizkie pertsona horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko banakako atxikipena formalizatu ondoren, eta kargu horretako eginkizunak betetzen dituzten bitartean. Hala, Kodearen ondorioen denbora-muga zehazte aldera, izendatutako karguduna Kodeari atxiki zaion unea da hasiera zehazteko elementu erabakigarria (gai horri buruz, ikusi 10/2017 Erabakia); aldiz, "EJKren indar loteslea desagertu egiten da arau propioak dituen kargu publiko bat betetzen ari den pertsonak kargu publiko hori betetzeari uzten dionean lege ezarritako prozedura betez; hau da, eskumena duen organoak kargua uzteko erabakia hartzen duenean eta kargu-uzte hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen denean" (1/2017 Erabakia).

4.- Laburbilduz, beraz, EJK-k ondorioak ditu Etika eta Jokabide Kodearen Testu Bateginaren (2016ko azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua) 2. artikuluan aipatutako hartzaileengan, haien izendapena formalizatzen denetik kargu-uzteak ondorioak dituen arte, 16. apartatuan aipatutakoa salbu.

5.- Gorago emandako argibideak —ikusitako dugunez, finkatutako doktrina bihurtu dira Etika Publikorako Batzorde honetan—, neurri handi batean, baliagarriak izango dira gai honi buruz hartu beharreko erabakiak hartzeko, (...) jaunak egindako kontsultan berariaz aipatutako hiru pertsonen dagokienez ((...) jauna eta (...) eta (...) andreak). Pertsona horien egoerak banan-banan aztertuko ditugu jarraian; errealitate desberdinetatik abiatzen dira, eta, horrenbestez, batzorde honek argudio desberdinak ematen ditu kasu bakoitzari buruz.

6.- (...) jaunari dagokionez, 2012. urtearen amaieraz geroztik (...)ko sailburua izan bazen ere, kargua utzi zuen martxoaren (...)ko Dekretuaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (...)-n. Geroago, 2019ko maiatzaren 4an, (...) enpresan hasi zen lanean, Eusko Jaurlaritzari jarduera horretarako bateragarritasun-eskaera egin ondoren. (...) jaunak berak jakinarazi du hori eta dagokion dokumentazioa aurkeztu du Etika Publikorako Batzordean, aztergai dugun kontsultari egindako alegazioetan.

Ia bi urte igaro dira, beraz, (...) jaunak Eusko Jaurlaritzako kargu publikodun izateari utzi zionetik. Lehenago adierazi dugunez, Etika Publikorako Batzorde honen doktrinaren arabera, EJK-k ondorioak izateari uzten dio hari atxiki zaizkion kargudunentzat, hain zuzen ere, kargu-uztea formalizatzen den unean. Hortaz, ondorioztatu behar dugu ezin direla aintzat hartu aurkeztutako kontsultan (...) jaunari buruz adierazitakoak, are gehiago kontuan izanda denbora asko igaro dela Jaurlaritzako eginkizunak utzi zituenetik. Hori guztia, 16. apartatuan adierazitakoa salbuetsita.

7.- (...) andrearen egoera aztertu dugu ondoren; (...)ko zuzendariorde izendatu zuten erakunde horretako zuzendari nagusiaren martxoaren (...) Ebazpenaren bidez.

Gorago azaldu dugunez, EJKren aginduek balio dezakete erantzukizun publikoak dituzten beste pertsona batzuk informatzeko printzipio gisa; hala ere, agindu horiek —eta, ondorioz, Etika Publikorako Batzorde honen erabakiak— lotesleak dira soilik kodearen aplikazio-eremuan sartzen diren kargudunentzat; alegia, testu horren bigarren artikuluan zehaztutako pertsonentzat, eta arau horretan adierazitako prozeduraren arabera kodeari atxikitzen zaizkion unetik. Bada, (...) andrearen kasuan ez da halakorik gertatzen; izan ere, erantzukizuneko kargua izan zuen (...)aren barne-organigraman —(...)ko zuzendariordea—, baina kargu horren maila ez zegoen sartuta, aipatutako araudiaren arabera, EJKren eremu subjektiboaren barruan.

Horrenbestez, ez dugu onartzen (...) jaunak aurkeztutako kontsulta (...) andreari dagokionez; izan ere, azaldu dugunez, hark betetako kargua ez da sartzen EJKren aplikazio-eremu subjektiboan.

8.- Jarraian, (...) andrearen kasua aztertuko dugu. Hari buruzko kontsulta-idazkia zabalagoa eta espezifikagoa da, aipatzen baitu ez soilik sailburuorde kargua utzi ondoren (...) enpresa pribatura igaro zela, baizik eta baita (...)ko kide izatea eta enpresa horrekiko lan-lotura denboran bat etor zitezkeela ere. Hala, kontsulta-idazkiaren arabera, (...) andrea, sailburuorde kargua utzi ondoren, "2020ko irailaren 10etik dago alta emanda (...) enpresako kudeatzaile gisa (...)n". Era berean, kontsulta-idazkiak azaltzen du Gobernu Kontseiluak ez zuela (...) Administrazio Kontseiluko kide kargutik kendu (...) ra arte, eta, beraz, denbora-tarte jakin batean Administrazio Kontseiluko kide izan zela eta, aldi berean, (...) enpresako langilea.

Zalantzarik gabe, (...) andrearen egoera da hemen aztertutako egoerarik mugakoena, eta, horregatik, hari buruzko hausnarketa eta azterketa sakonagoa egingo dugu aurrekoei buruzkoa baino, askoz ere argiagoak eta nabarmenagoak baitira haiek, (...) jaunaren kasuan kargua utzi zuenetik egun asko igaro direlako eta (...) andrearen kasuan EJKren aplikazio subjektiborik ez dagoelako.

9.- (...) andrea (...)ko sailburuorde kargutik kendu zen (...)ko Dekretuaren bidez, eta, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (...) argitaratu bazen ere, dekretu horrek zehazten zuen "(...) izango dituela ondorioak", hau da, eman zen egunean bertan. Hori guztia bat dator denboran hauteskunde autonomikoen ondoren Eusko Jaurlaritza berri bat eratzearekin; izan ere, (...) Lehendakariaren Dekretuaren bidez izendatu zen (...) sailburu berria, eta dekretu hori hurrengo egunean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, (...).

Aurreko datuak argitzen digu (...) andreak Eusko Jaurlaritzako sailburuorde gisa duen harremana, zentzu hertsian, zein egunetan amaitzen den -(...)an-, eta, beraz, aurreko lerroetan azalduetako Etika Publikorako Batzorde honen doktrinaren ildotik, une horretan etengo litzateke, *stricto sensu*, EJKrekiko lotura ere. Gai horri buruz gogorarazi behar dugu, beste behin ere, "EJKren indar loteslea desagertu egiten dela preskripzio propioak dituen kargu publiko bat bete duen pertsonak bere erantzukizun publikoa uzten duenean, legez ezarritako prozeduraren bidez; hau da, eskumena duen organoak kargutik kentzeko erabakia hartzen duenean eta erabaki hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratzen denean" (1/2017 Erabakia).

10.- Horrenbestez, nahiz eta formalki argi geratu noiz uzten dion (...) andreak sailburuorde izateari –eta, hortaz, noiz desagertzen den EJKrekiko duen lotura– ezin dugu ahaztu, gainera, kontsulta-idazkiak azaltzen duena: Gobernu Kontseiluak ez zuela ordezkatu (...)ko Administrazio Kontseiluko kide gisa 2020ko urriaren 20ra arte, eta, beraz, betiere (...) jaunak aurkeztutako kontsulta-idatziaren arabera, denboraldi jakin batean, aipatutako Administrazio Kontseiluko kidea izan zela, eta, aldi berean, (...)–eko langilea.

(...) andreak alegazio-izapidean azaldu duenez, (...)ko Administrazio Kontseiluko kide izatea sailburuorde izatearen ondorio zuzena zen, eta, beraz, kargu hori uztean, ulertu behar da bertan behera uzten dituela kargu horrek berekin ekar ditzakeen ordezkaritza-eginkizunak ere. Interesdunak aipatzen duen gaiari buruz, ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 29. artikulua dioenez (Jaurlaritzaren Legea), "Administrazio goi-kargudunak dira dekretu bidez izendatu eta zerbitzu-harreman baten bidez Autonomia Erkidegoari lotuta dauden sailburuordeak eta zuzendariak. Harreman hori izendapen-dekretuarekin hasten da, eta kargu-uzteaz edo dimisioz amaituko da, dagokion dekretua argitaratzen den egunetik aurrera". Beraz, (...) andreak ondorioztatzen du Administrazio Kontseiluko kidearen postua hutsik geratu zela, hari eta arauak ezarritakoaren arabera bete arte, eta hori, aztertzen ari garen kasuan, Administrazio Kontseiluaren 2020ko urriaren 20ko bileran gertatu zen.

11.- Egiaz, zentzuzkoa dirudi pentsatzea gobernu-aldaketako testuinguru batean aldatu egiten direla kargu publikodun batzuk, aldi berean sozietate edo erakunde publiko jakin batzuetan ordezkaritza-eginkizunak betetzen dituztenak. Jakina, lanpostu huts horiek ez dira automatikoki beteko; aitzitik, erakunde horietako bakoitzaren araudi espezifikoaren mende egongo dira, eta horrek atzeratu egingo du lanpostu horiek beteko dituzten pertsona berrien izendapena.

Etika Publikorako Batzorde honek (...)ren aktak eskuratu ditu, bere web-orrian kontsulta daitezke eta. Bilera horietan egiaztatu ahal izan dugunez, (...) andreak parte hartu zuen azken Administrazio Kontseilua 2020ko uztailaren 22koa izan zen, artean sailburuorde zela. Kontseiluaren hurrengo bilera 2020ko urriaren 20an egin zen, eta, hain zuzen ere, Administrazio Kontseilu berria eratzeko balio izan zuen (gai-zerrendako lehen puntua); kide berriak karguez jabetu ziren.

Azken batean, ez da inon ageri (...) andreak ekintzarik egin zuenik, gobernuaren egiturari modu batean edo bestean lotuta zegoela ondorioztatzea ekarriko lukeenik, ezta inolako ondorioetarako sailburuorde izaten jarraitzen zuela adierazten zuenik ere. Datu horrek, eta aipatu den bezala kargutik (...)an kentzeak, bide ematen digu, (...) jaunaren kasuan bezala, kontsultan aipatutako

datetan EJKren aplikazio-eremutik kanpokotzat hartzeko, eta, beraz, egindako kontsulta EJKren balizko ez-betetzetzat ez hartzeko.

12.- Nolanahi ere, uste dugu deskribatutako egoera nahasiak, alegia, (...) andrea (...)ko Administrazio Kontseiluko kide den ala ez, zalantzak sor ditzakeela, ea Eusko Jaurlaritzaren egituran jarraitzen duen ala ez, eta, beraz, ondorengo gogoeta bat merezi duela. Izan ere, Etika Publikorako Batzordearen eginkizunetako bat da "gomendioak egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko eta haren sektore publikoko kargu publikodunei, bai eta sailei eta erakundeei ere, Etika eta Jokabide Kodea betetzeari buruz" (Etika eta Jokabide Kodearen Testu Bateginaren 16.3.1 f artikulua).

Horrela, bada, hemen aztertutako gaitik abiatuta –eta, zehatzago, (...) andrearen egoeran–, komenigarritzat jotzen dugu kargu publikodunak kargutik kentzeko dekretuetan, bidezkoa denean, kargu publikodun horrek betetzeko izendatuak izan diren izendapen diskrezionalen kargu-uzteari buruzko aipamenen bat jasotzeko aukera aztertzea; betiere, bistan denez, izendapen horiek kargu publikodun izate hutsagatik egiten badira. Aipamen horrek gaizki-ulertuak saihestuko lituzke, aztergai duguna esaterako, edo Jaurlaritzaren mendeko kide anitzeko hainbat organo berritzeko beharra planteatzen duten garaitan –legegintzaldi aldaketetan, adibidez– sor daitezkeen beste batzuk.

13.- Azkenik, (...) jaunak bere kontsultan azaldu du Jaurlaritzak hirurei eman diela –(...) jaunari eta (...) eta (...) andreei– kargu publikoa utzi ondorengo bi urteetan jarduera pribatuak egiteko baimena, "baimen hori emateko Etika Batzordeak bilerarik egin gabe". Horrela, idatzian azpimarratzen duenez, Etika Publikorako Batzordeari eskatzen dio azter dezala ea Eusko Jaurlaritzaren Etika eta Jokabide Kodearekin bat datorren (...) Sailarekin harreman zuzena izan duten eta segur aski izango duten osasunaren arloko enpresetan lan egitera igarotzea zuzenean, hain zuzen ere, sail horretan erantzukizuneko lanak egiten aritu diren pertsonak. Gainera, azken eskaeran, eskatzen du Etika Publikorako Batzorde honek erabaki dezala ea (...) Sailak edo (...)k neurriren bat hartu behar duten hurrengo urteetan enpresa interesdunekin egin daitezkeen kontratazioetan.

14.- Komenigarria iruditzen zaigu hemen gogoeta egitea Etika Publikorako Batzorde honen muga funtzionalei buruz eta, horrekin batera, araudiak beste erakunde batzuei gordetzen dizkien zereginei buruz. Hain zuzen ere, Etika Publikorako Batzorde honek bere lehen ebazpenetatik mugatu nahi izan du bere lana ordena etikoaren esparrura, eta, are zehatzago, EJKri borondatez atxiki zaizkion kargu publikodunek eta parekatutakoek kode hori betetzen ote duten argitzeko irizpena eman nahi izan du. Ordenamendu juridikoa betetze hori ez da garrantzirik gabea, inolaz

ere. Nolanahi ere, batzorde honen egitekoen artean ez dago administrazio-jarduketa baten legezketasunari edo, hala badagokio, goi-kargudunen jokabidearen zuzentasun juridikoari buruzko epaiak ematea (horretaz, ikus gure 8/2014 Erabakia).

Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituenak, II. kapituluan jaso zituen Eusko Jaurlaritzako kargu publikodunen eta parekatutako jardunaren printzipioak eta balioak. Eta, edukian aldaketa batzuk egiteko beharra ekarri bazuen ere, printzipio eta balio horiek, *mutatis mutandi*, jatorrizko idazketatik EJKn jasota zeudenak errepikatu zituzten.

Hala ere, lege horren edukia ez da aipatutako kapitulura mugatzen, baizik eta, askoz ere modu zabalagoan, une honetan ezinbesteko interesa duten beste elementu batzuk ezartzen ditu, hala nola "Kargu publikodunen bateraezintasun araubidea" (III. kapitulua), "Kargu publikodunen betebeharrak" (IV. kapitulua), "Legean ezarritako betebeharren kudeaketa eta kontrola" (V. kapitulua) eta, azkenik, "Zehapen-araubidea", gerta daitezkeen ez-betetzeetarako.

15.- Aipatutako lege-testua azaletik aztertuz gero, ikus dezakegu Etika Publikorako Batzordea ez den beste organo batzuen esku uzten dituela bateragarritasun-baimenak eta baimen horien inguruabarren kudeaketa eta kontrola. Horrela, aipatutako legeak eta, zabalago, hura garatzeko dekretuak – 156/2016 Dekretua, azaroaren 15ekoa, Kargu publikodunen betebeharrari eta eskubideei buruzkoa – bateragarritasun-prozedura bat ezartzen dute hemen azaldutako egoeretarako.

Prozedura horrek ez du aurreikusten EPB honen esku-hartzea fase bakar batean ere. Izan ere, Batzordearen jarduera, administrazio-kudeaketa zaildu beharrean, kudeaketa hori legegileak eta Eusko Jaurlaritzak aldarrikatutako printzipio eta balio etikoei egokitzen zaien ebaluatzerari bideratzen da, *a posteriori*.

Batzorde honek ezin ditu bere gain hartu, bere eremu subjektibotik kanpo, legeak beste organo espezifiko eta jakin batzuei eskusiboki gordetzen dizkien elementuak epaitzeko eta baloratzeko funtzioak. Nolanahi ere, gai hau ezagutu eta ebazteko egindako izapideetan egiaztatu ahal izan dugu (...) jaunak eta (...) andreak dagozkien bateragarritasunak izapidetu eta lortu zituztela, aipatutako araudian deskribatutako jarraibideen arabera.

Are gehiago, Osasun Saileko Aurrekontu eta Kontabilitateko arduradunak emandako txostenaren arabera (...) jaunaren entzunaldi-izapidean eranskin gisa erantsi zaio espedienteari, hau dago jasota: "2012 eta 2019 urteen artean, Eusko Jaurlaritzako (...) Sailak ez zuen kontrataziorik egin

(...) merkataritza-sozietatearekin". Horrek guztiak erakusten du Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak jarritako arreta, emandako bateragarritasunak ez daitezen kaltegarri izan, bereziki, euskal administrazioen jarduerak izan behar duen eredugarritasun-printzipioan.

16.- Laburbilduz, Etika Publikorako Batzorde honek ezin ditu aztertu bere garaian EJKren agindupean egon arren kargudun gisa zituzten erantzukizunak utzi dituzten pertsonen eremu pribatuan egin ditzaketen jarduketak.

Aurreko datuak ez du esan nahi, zalantzarik gabe, batzorde honek ezin duenik baloratu enpresa pribatuaren eremuan gerta daitezkeen edo gertatu diren jarduketan edo loturen eragina eta horiek kargu publikodun baten jardunean izan ditzaketen eragin etikoak (ikus, urrunago joan gabe, 6/2013 eta 12/2013 Erabakiak). Baina, aurreko ebazpenetan ezarri dugun legez, ez da gauza bera gertatzen kargua formalki utzi ondoren gertatzen direnekin, kasu honetan bezala, EJKren eremu subjektibotik kanpo geratzen baitira, eta araudiak beste organo zehatz eta jakin batzuk aurreikusi baititu horiek izapidetzeko eta aztertzeko.

Aurreko parametroen barruan, Etika Publikorako Batzordeak zorrotasunez aztertuko du gerta daitezkeen edozein kasu, eta ezin izango du aurreratu batzorde honek etorkizunean izan ditzakeen funtzioak eta gaur egun legez aurreikusitako beste kudeaketa- eta kontrol-organo batzuek dituztenak nahas ditzaketen EJKren balizko urraketari buruzko hipotesirik.

Hala ere, eredugarritasunaren mesedetan, gogorarazten da Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeak –15. puntuan aipatu den bezala aztergai dugun kasuetan aplikatzen dena– honako hau xedatzen duela kargu publikoa utzi ondorengo debekuei buruz 18. artikuluan, 4. eta 5. apartatuetan:

4.– Halaber, artikuluan honen lehen paragrafoan aipatutako kargu publikodunek, eta denbora-bitarte berean (bi urtez), ezin izango dute egin, ez beren kasa, ezta zuzenean edo zeharka haien % 10eko partaidetza baino handiagoa duten sozietate edo enpresen bitartez ere, laguntza teknikoko kontraturik, zerbitzukurik edo antzekorik Administrazioarekin eta sektore publikoko organismo, entitate edo enpresekin, baldin eta horietan kargu publikodun gisa zerbitzurik eman badute, zuzenean edo enpresa kontratatzaile edo azpikontratatzailen bidez.

5.- Kargu publikoa utzi eta hurrengo bi urteetan, berriro jardunean hasi baino lehen, egin asmo dituzten jarduerari buruzko adierazpena egin beharko dute. Adierazpena lege honetako 24. artikuluan aipatzen den kudeaketa-organoan egingo da. Hilabeteko epean, organo horrek bere iritzia azalduko du egin asmo den jardueraren bateragarritasunari buruz eta interesdunari eta hura zerbitzua ematekoa den enpresa edo sozietateari jakinaraziko die.”

